




**Euskal
Eskola
Publikoa,
gaur, bihar**

HEZKUNTZA-ITUNARI ETA EUSKAL HEZKUNTZA LEGEARI BURUZKO EEPGB TALDEAREN IRITZI ETA EKARPENEN DOKUMENTUA

Dokumentu honetan **Euskal Eskola Publikoa, gaur, bihar** taldearen iritzi labur batzuk jaso dira, Hezkuntza Sailak hezkuntza-itunari eta Euskal Hezkuntza Legeari buruz martxan jarri duen prozesuaren gainekoak. Era berean, labur-labur deskribatuko dira euskal hezkuntza-sistemaren egiturazko ahuleziak gainditzeko beharrezko aldaketak eta erreformak, bai eta Euskal Eskola Publikoaren kalitatea hobetzeko oinarrizko proposamenak ere.



1. PARTE-HARTZE ETA KONTSULTA-PROZESUARI BURUKO IRITZIAK

Hezkuntza Sailak hezkuntza-itunaren eta Euskal Hezkuntza Legearen oinarriak definitzeko abian jarri duen prozesua ez da benetako prozesu parte-hartzailea izan, baizik eta horren kontrakoa. Prozesua definitu, diseinatu eta mugatzerakoan Gobernuaren intereseko gaiak baino ez dira kontuan hartu. Sailak hautatu zituen batzorde teknikoetako parte-hartzaileak, hezkuntzako eragileek aukeratu beharrean. Gainera, dokumentua osatzeko prozesua guztiz bideratua egon zen: gaiak aldeztatik aukeratu zituzten eta oinarritzko txostenak aldeztatik idatzita zeuden. Parte hartzeko deia jaso zuten batzorde teknikoetako parte-hartzaileek emandako testu batzuen inguruko ekarpenak egin ahal izan zituzten, besterik ez, eta testu horiek nori idatziak ziren ere ez zekiten. Prozesu horretako hurrengo urratsa Gobernuaren «Euskadiko Hezkuntzarako Akordioa» izeneko dokumentua argitaratzea izan zen, bere garaian «Hezkuntza-itun baterako oinarriak» izenburupean aurkeztu zena zeina, bitxikeria gisa, existitzen ez den itun batean oinarrituta eraiki baita. Azken emaitza amaitutako produktu gisa aurkeztu zaie herritarrei, Legea onetsi aurreko urrats burutu bezala.

Sailak hautatutako bost gaiak (modernizazioa, bizikidetzatza, hizkuntzak, ebaluazioa eta ikastetxeen autonomia) ez dira gatazkatsuak eta ez da beharrezkoa Lege bat egitea horiek garatzeko. Alabaina, nahita utzi dira eztabaidatik kanpo gatazka pitz lezaketen beste gai interesgarri batzuk, nahiz eta iritzi desberdinak identifikatzeko eta adostasunak erdiesteko garrantzitsuak izan. Batzuk aipatzearen: sistemaren printzipioak eta hezkuntzaren xedeak, egungo sistema dualaren ahuleziak, eskola-segregazioa gainditzeko moduak, finantzaketa eta itunpeko ikastetxeetarako irizpideak, koordainketa kentzea, eskola-mapa birformulatzea, hezkuntza udalerrien esku uztean oinarritutako deszentralizazioa, jaiotza-tasa apala eta hezkuntza-gaitasunetan horrek duen eragina, etab.

Edonola ere, egoera horren alderdirik larriena, EEPGBren iritziak, herritarrei etorkizunerako nahi duten hezkuntzari buruzko iritzia emateko aukera ukatzea da. Euskal Eskola Publikoa «hezkuntza-zerbitzu» huts gisa aurkezten duten planteamendu erredukzionistetatik haratago doa: gizarteko kohesioa eta justizia bermatzeko proiektu sozial bat da. Horregatik, euskal hezkuntzaren oinarriak herritarren zuzeneko parte-hartzearen bidez eraikitzea eskatzen dugu. Horretarako, kontsultak egiteko benetako prozesu bat abiarazteko eskatzen dugu, guztion artean etorkizuneko euskal hezkuntza eta eskola publikoa osatzeko.

Administrazio-Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 133. artikulua betetzeko,

kontsulta publikoa egin behar du Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Hezkuntza Legea idatzi aurretik, baina izapide administratibo arin-arina besterik ez da izan, benetako parte-hartzea sustatzeko xederik gabea. EEPGBren iritziz, argi geratu da Eusko Jaurlaritzak ez duela borondaterik lehen aipatu dugun kontsulta publikoa gauzatzeko.

2. EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN LEGEAREN PRINTZIBIOAK ETA OINARRIZKO HELBURUAK

Euskal hezkuntza-sistemaren eta, zehazkiago, eskola publikoaren oinarrizko arazoen analisiari heldu aurretik, zentzuzkoa iruditzen zaigu 1993ko Euskal Eskola Publikoaren Legearen printzipioak eta oinarrizko helburuak gogora ekartzea, euskal gizarteak nahi zuen Euskal Eskola Publikoaren garapena arautzen baitzuten, lehenagoko estatuko eskola-eredu nazionalaren berregituraketa sakona eginez.

Lege horretan jasotako printzipio orokorren eta xedeen arabera, honela definitu zen Euskal Eskola Publikoa: **anitza, elebiduna, demokratikoa, euskal gizartearen zerbitzura dagoena, gizarte eta kultura mailan bere ingurunean errotua, partaidetzakoa, ezberdintasunen berdintzailea eta dibertsitateen bateratzailea**. Printzipio horiek euskal eskolaren zutarrri ideologikoak dira, eta gaur egun ere horiexek dira haren ezaugarriak.

Era berean, legeak adierazten zuen **eskola publikoak giza baliabideez eta baliabide materialez ongi hornituta egon behar duela eta harekin loturik dauden gizarte-sektore guztiek esku hartzea eta ikastetxeek egiazko autonomia izan behar dutela**. Horiek dira herritarrei **kalitatezko hezkuntza** bat eskaintzeko behar diren gutxieneko baldintzak.

Finantzaketari dagokionez, eskola publikoa **doakoa, eta ez bakarrik derrigorrezko mailetan, eta aldean zuzentzailea da, batik bat desparekotasun sozioekonomikoak zuzenduko ditu, haiek ezabatzen lagunduko duten neurriak ezarriz**. Horretarako, konpentsazio-funts bat eratuko da, aurrekontu bidez urtero hornituko dena.

Euskararen normalizazioari dagokionez, **hezkuntza-administrazioen eta administrazio eta instantzia sozialen arteko lankidetzaren eta elkarlanaren printzipioa arautzen da, eta irakasleak euskalduntzeko hainbat urtetako plan bat egitea aurreikusten da**.

Legeak **eskola-barrutien arabera lurralde-banaketan** oinarrituta antolatu zuen Euskal Eskola Publikoa, eta ikuskaritza-funtzioa eta hezkuntza-sistemari laguntzeko zerbitzuak zonakatzeko-eredu horren arabera antolatu zituen.

Autonomiari dagokionez, legearen testuan zehaztapen hau egiten zen: **ikastetxeek beren antolakuntza, irakaskuntza-jarduera, ekonomia eta finantzen kudeaketa eta langileen kudeaketa moldatzeko ahalmen handiagoak izanez gero, irakaskuntzaren kalitatea hobetuko da**; uste horretan oinarriturik, lege hau saiatzeko ahalik eta autonomia handienaren eta administrazioak haien gainean egin beharreko koordinaketa eta kontrolaren arteko oreka mantentzen, administrazioak bermatu beharra baititu eskola publikoen helburu nagusiak, sistema osoak lor ditzan behar diren gutxieneko neurriak. Ildo horretan, aukera berritzaile bat txertatu zuen Legeak: **ikastetxeek beren langileak aukeratzeko eta parte-hartzeko aukera ematen zuen.**

Azkenik, Legeak **ikastetxeko zuzendariaren figura sustatzen du.** Horretarako, gainditu beharreko espezializazio-ikastaroak ezartzen dira, langile horiek funtzio hori betetzeko beharrezko prestakuntza izan dezaten. Berritzailea da, halaber, **legean zuzendaritza-taldea ikastetxearen kide anitzeko gobernu-organo gisa definitzea.**

EEPGBren balorazioak

Adostasun politiko nahikoa izan zuen Legeak onartu zenean baina, indarrean egon den 25 urte hauetan, ez da borondate politikorik egon Legeak Euskal Eskola Publikoari esleitzen zizkion potentzialtasun guztiak garatzeko.

Garrantzitsua da eskola publikoak alderdi hauetan eginiko ekarpen handia aitortzea:

- Parte-hartzera bideratutako kultura demokratikoa sustatzea.
- Herri eta auzoen garapen kultural eta sozialean izandako parte-hartzea.
- Euskararen ikaskuntza eta erabileraren normalizazioa.
- Aniztasuna modu egokian tratatzeko ikaskuntza-irakaskuntzako estrategiak garatzea.
- Eskolako absentismoa murriztea, eta bizikidetzarako hezkuntza sustatzea.
- Etab.

Egindako lan horren guztiaren ondorioz, zalantzarik gabe hobera egin du herritar gehienek Euskal Eskola Publikoari buruz duten iritzi positiboak, nahiz eta hezkuntzako helburu batzuen garapen-maila osoa ez izan, jarraian aipatuko ditugun kausak direla eta.

Alabaina, legearen **beste potentzialtasun garrantzitsu** batzuek ez dute ia garapenik izan: autonomiarekin lotutako alderdiak, batik bat langileei dagokienez; zuzendaritza-taldeen garapen profesionala; eta eskola-barrutien

bidezko parte-hartzea alderdi garrantzitsuak ziren eskola publikoak hezkuntza-kalitate hobea eskaini zezan eta eskola-plangintza hobea egin zedin baina, tamalez, ez dute behar besteko bultzada politikorik izan.

Hezkuntza Sailaren arduradun politikoei, 25 urte hauetan, ez dute Euskal Eskola Publikoaren Legea behar bezala garatu ez eguneratu, hezkuntzaren eta gizartearen erronka berriei erantzuteko. Irismen urriko politiken eta euskal hezkuntza-sistemaren egiturazko arazoei sakontasunez heltzeko ezintasunaren erruz, eskola publikoa ezin izan da gehiago zabaltzea gizartean, eta ezin izan die erantzun hobea eman haren sorrera eragin zuten hezkuntzako xedeei.

Alabaina, Euskal Eskola Publikoaren Legea egungo gizartearen beharretara egokitzeko txertatu beharreko eguneraketak gorabehera, guztiz indarrekoak dira eskola publikoaren printzipioak eta hezkuntzako xedeak, bai eta horiek garatzeko Legearen testuan adierazten diren konpromisoak ere. Hori dela eta, **EEPGBk ez du uste Euskal Eskola Publikoaren Legearen oinarriak amortizatzeko arrazoi justifikaturik dagoenik.**

3. HEZKUNTZA-ITUNAREN ETA EUSKAL HEZKUNTZA LEGEAREN AGERTOKIA

Euskal hezkuntzak baditu egiturazko arazo batzuk, EEKren txostenek, ISEI-IVEIren ebaluazioek eta unibertsitateko ikerketek agerian utzi dutenez. Horietako batzuk aipatze aldera:

- Hizkuntza-ereduen trinkotasunik eza eta horrek eskolatzeko desoreketan duen eragina.
- Ikasle eta ikastetxeetako segregazio-egoerak eta ikastetxe bakoitzaren barneko ekitate-arazoak.
- Desberdintasun sozioekonomikoek eta kulturek emaitzetan duten eragin handia.
- Efizientzia-falta.
- Maila soziokultural ertain-altuko ikasleak eskolatzen dituzten ikastetxeen bikaintasun-falta.
- Ebaluazio-eredu integral baten gabezia, bai eta ebidentzia zientifikoetan oinarritutako hezkuntza-ikerketako eredu baten gabezia ere.
- Gure sistemaren anomaliak inguruko eta Europako beste sistema batzuekin alderatuta: itunpeko hezkuntza pribatuaren ehuneko handia eta gainfinantzaketa.

Egoera horren aurrean, lehenik eta behin esan behar dugu borondate politiko

argia egon dela egiturazko arazo horiei ez heltzeko, azken bi hamarkadetan EEK-k eman dituen txostenak gorabehera. Eskola publikoaren familien eta zuzendaritzen elkarteek behin eta berriz nabarmendu dituzte arazo horiek gure hezkuntza-sisteman duten eragin negatiboa.

Arazo horiek, ikasle guztien aukera-berdintasuna eta gizarte-kohesioaren helburua oztopatzeaz gain, eskola publikoak sistemaren karga handienak bere gain hartu behar izatea ere eragin dute.

Horregatik, EEPGBk aldarrikatzen du beharrezkoa dela premiazko erreformak egitea, gure hezkuntza-sisteman **justizia sozialerako benetako hezkuntza** bat garatzeko aukera emango digutenak. Guretzat, sistemaren modernizazioak eta hezkuntza-berrikuntzak lotuta egon behar dute **ikasle guztientzako eskola-arrakastaren hezkuntzako printzipioarekin**.

Zentzu horretan, erronka ugari ditugu aurrean: migrazio-fenomenoak, krisialdi ekonomikoa eta pobrezia, ikasketa-mailaren eta enpleguaren arteko harreman zuzena, genero-berdintasuna, alfabetatze digitala, etab. Horiek ikusita, eskola publikoak argi du erantzunik onena **eskola inklusibo gehiago** eta **desberdintasunak konpentsatzeko efikazia handiagoa** direla.

Aurrean dugun hezkuntzaren agertoki hori ikusita, EEPGBk uste du Hezkuntza Legearen helburu nagusia egungo hezkuntza-sistemaren sakoneko erreforma izan beharko litzatekeela, **statu quo aaldatuz**, egungo eredu dual publiko-pribatu erradikalizatua gaindituz, hori baita gure sistemaren ezaugarri nagusia, beste sistema arrakastatsu batzuekin alderatuta. Sakoneko aldaketa hori gabe, euskal hezkuntza-sistemak interes korporatiboak eta desberdintasun sozialak errepikatzen jarraituko du, eta haren funtzionamendua neoliberala eta ia merkatu bat bezalakoa izango da, hots, egungo egoera eragin duten arazoak mantenduko dira.

EEPGBren ustez, beharrezkoa da adostasun berri eta zabalagoak sustatzea. Horretarako, ulertu behar da ituntzeko prozesua eta hezkuntza-esparru berria aukera bat izan behar direla lehen deskribatutako **egiturazko arazoak** gainditzeko, bai eta **Euskal Eskola Publiko hegemoniko bat** eraikitzeko, zeinak **sistema egituratuko baitu** lehen aipatutako printzipioetan eta hezkuntzako xedeetan oinarrituta.

Goian aipatutako arazoetako askori erantzuna emateko ez dago Hezkuntza Lege berri baten beharrik, negoziazio politikorako gaitasuna baizik. Azken 25 urteetako esperientziak erakutsi digu ez dela nahikoa erreformatzeko asmoa duten lege-testu koherenteen inguruko adostasun zabalak erdiestea, gero ez badago horiek guztiz garatzeko borondate politikorik.

Horregatik, EEPGBk uste du premiazkoa dela **ikastetxe publiko guztietako**

hezkuntzaren kalitate eta efikazia hobetuko duten politikak abian jartzea, eskola-maparen sakoneko erreforma egitea, txiki-txikitatik prebentzio-neurrietan inbertsioak egitea, eskola publikoan beste gobernamentu mota bat sustatzea, udalek eskolaren plangintza gauzatzeko dituzten eskumenak hobetzea, etab.

Horretarako, alderdi politikoei eta hezkuntza eta gizarte-eragileei **konpromiso sozialez** jarduteko eskatzen diegu, guztion artean etorkizuneko gizarte-proiektu berri bat eraiki ahal izateko.

Adostasunak erdiesteko behar den denborari dagokionez, ez gaude ados Hezkuntza Sailak abian jarri duen prozesu ezin arinagoarekin. Benetako beharra ez da egungo sistema gainegitura gisa baliozkotuko duen Lege bat presaka argitaratzea. Aitzitik, beharrezko denbora hartu behar da, parte-hartzearen eta eztabaidaren bidez herrialde honetan benetan nahi dugun hezkuntzaren inguruko adostasuna lortzeko. Lehenets ditzagun eztabaida eta adostasuna errealitatea mozorrotzen duen eta egiturazko arazoei erantzunik ematen ez dien lege bat presaka onartu aurretik.

Hezkuntzako estatus berri baterako finantzaketa

Gure hezkuntza-sistemak behar dituen aldaketa sakonak egingo badira, beharrezkoa da beste finantzaketa-sistema bat arautzea.

Euskal hezkuntza publikoak azken urteotan pairatu behar izan dituen murrizketek eta gure herrialdean hezkuntzara bideratutako BPGd-ren ehunekoak erakusten dute, besteak beste, hezkuntzaren finantzaketa-eredua berrikusteko beharra dagoela. Euskal ekonomiak azken urteotan hobera egin duen arren, eskola publikoarentzako aurrekontu-sailak ez dira hobetu. Gainera, gero eta presio gehiago egiten da itunpeko ikastetxeen egoera hobetzeko. Zergak ordaintzen ditugunez, herritarrok eskubidea eta obligazioa dugu politikariei kalitatezko zerbitzu publikoak eskatzeko, merkatuak eskaintzen dituen aukera pribatuen gainfinantzaketaren ordeztu. Hezkuntzaren alorrean egiten ari dena ulergaitza litzateke osasun-arloan edo beste sektore batzuetan.

EEPGBk BPGd-ren ehuneko bat hezkuntzara bideratzearen alde egiten du, hezkuntza-sistema arrakastatsua dituzten Europako beste herrialdeetan bezala, non eskaintza publikoa nagusi baita. Euskal Eskola Publikoaren Legeak dioen bezala, eskola publikoak finantziario nahikoa izan behar du, ondorioz, inbertsio gehiago esaktzen ditugu bere hezkuntza-kalitatea hobetzeko.

Bestalde, uste dugu iritsi dela itunpeko ikastetxeen sistema berrikusteko unea. Izan ere, beste autonomia-erkidegoetan baino askoz zabalduago dago aukera hori, eta ikastetxe guztiek ez diote ekarpen bera egiten hezkuntza-inklusiari eta gizarte-kohesioari.

EEPGBek salatzen du ikasleak sexu eta maila sozio-ekonomikoaren arabera aukeratzten dituzten ikastetxe pribatuak finantziazioa jasotzen jarraitzen dutela, interes partikularrak gizartekoen ginetik ipiniz. Ikastetxe hauek ez lukete finantziazio publikorik jaso beharko. Euskal Eskola Publikoak ez du babestuko egoera hau mantentzea helburu duten lege-esparrurik.

Guk defendatzen dugun hezkuntza-sistema defendatzen duten eragile sozial eta politikoekin, ikastetxe bakoitzak Inklusio eta gizarte-kohesioaren helburu sozialei aportatzen dienaren araberrako hitzarmen-eredua aztertu eta aurkitzeko prest gaude.

4. EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA, ETORKIZUNERAKO BERMEA

EEPGBren apustua Euskal Herrirako hezkuntza baten aldekoa da, ingurunean errotutako sistema propio euskaldunean oinarritutakoa, pertsonaren garapen integrala bermatuko duena eta dokumentu honen hasieran azaldutako printzipio eta hezkuntza-xedeen arabera antolatutakoa.

Ikasle guztien inklusioa eta eskolako arrakasta babesten ditugu, justizia eta kohesio sozialaren berme gisa.

Gobernamendu-sistema deszentralizatu eta autonomia babesten dugu, hezkuntza-komunitateak erabakietan parte hartuta, hezkuntza-eragileekin batera.

Kalitatezko hezkuntzaren aldeko apustua egiten dugu, ikaskuntza erraztuko duen eskolako giroan oinarrituta, eta arreta pertsonalizatua eta ebidentzietan oinarritutako ikaskuntza oinarri dituen ikaskuntza-irakaskuntzako metodologia batekin.

Herri eta auzoen bizitza sozial eta kulturean parte-hartze aktiboa izango duen Euskal Eskola Publikoa nahi dugu.

Sarean lan egingo duen eskola publikoa nahi dugu, ikastetxe bateko esperientzia arrakastatsuak beste guztiekin partekatuko dituen.

Hezkuntzako gobernamendu-eredu berri bat aldarrikatzen dugu, egungo hezkuntza-administrazioaren eredua gaindituko duena, ikastetxeen dinamika eta arazoetatik urrun baitago. Ildo horretan, izaera parte-hartzaileko administrazio-egitura bat proposatzen dugu hezkuntza publikorako.

Ez gaude ados merkatuaren oso antzeko bikaintasun-eredu erretorikoekin, gizarteko desberdintasunak betikitzen dituztelako eta ikasleak maila soziokulturalaren eta sexuaren arabera hautatzen dituztelako.

5. AZKEN IRITZIA

Ezetz esaten diogu egungo egoera sendotuko duen legeari. Baietz esaten diogu *statu quo*a gainditzeko adostasunak lortzeko xedea duen eztabaida-prozesuari.

Baietz esaten diogu eskola publikoa ardatz izango duen lege bati, euskal berezitasunaren oinarrian komunitatearen parte-hartzea eta tokian tokiko errotzea jarriz eta bereizten gaituzten hizkuntza- eta kultura-elementuak nabarmenduz, betiere justiziaren eta gizarte-kohesioaren helburua erdiesteko asmoz.

Ezetz esaten diogu akritikoki merkatuaren legeen mende jarritako lege bati; baietz esaten diogu curriculumaren ardatzean bizi dugun zibilizazioaren krisiaren arrazoiak ipiniko dituen lege bati, ikasleei pentsatzen eta egungo ereduaren alternatibak eraikitzen irakasteko.

EEPGBk uste du idazki honetan aurkeztutako gaiak negoziazioaren bidez landu behar direla, eta aldaketaren eta Euskal Eskola Publikoa hobetzearen aldeko eragile aktibo izaten jarraitzeko borondatea berresten du.



Euskal Eskola Publikoa, gaur, bihar

2019ko Maiatza

EHIGE Gurasoen Elkarte

HEIZE Euskal Eskola Publikoaren Zuzendaritza Elkarten Federazioa

ehige 
Gurasoen
elkartea

 **heize**
Euskal Eskola Publikoaren
Zuzendaritza Elkarten Federazioa